BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

1455

EBAZPENA, 2014ko martxoaren 12koa, Industriako sailburuordearena. Honen bidez, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2011ko maiatzaren 18ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradun izan direnen zerrenda jakinarazten da (2013ko ekitaldia). Agindu horren bidez, Kanpoko Ezarpenak – Gauzatu Programa, hau da, euskal enpresen kanpoko ezarpenak sortu eta garatzen laguntzeko dena arautzen da.

Diru-laguntza publikoak emateko orduan ezinbestean bete behar da publizitatearen printzipioa. Hori dela eta, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2011ko maiatzaren 18ko Aginduaren babesean emandako laguntzen onuradunei banan-banan egin beharreko jakinarazpena egin zaienez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dugu orain onuradunen zerrenda. Agindu horren bidez, Kanpoko Ezarpenak – Gauzatu Programa, hau da, euskal enpresen kanpoko ezarpenak sortu eta garatzen laguntzeko dena arautzen da.

Hori horrela, aurreko paragrafoan adierazitakoarekin bat etorriz, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2011ko maiatzaren 18ko Aginduan aurreikusitako laguntzei dagokienez, 2013ko ekitaldian onuradun izan direnen zerrenda argitaratzea. Agindu horren bidez, Kanpoko Ezarpenak – Gauzatu Programa, hau da, euskal enpresen kanpoko ezarpenak sortu eta garatzen laguntzeko dena arautzen da. Ebazpen honen eranskinean dator zerrenda.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko martxoaren 12a.

Industriako sailburuordea,
JUAN IGNACIO GARCÍA DE MOTILOA UBIS.

ANEXO

2013 KANPOKO EZARPENAK

Enpresaren izena	Herrialdea	Aurrerakin itzulgarria
Grupo TTT de Tecnologías Integradas de Superficies	Mexiko	600.000,00
Industrias Químicas Kupsa, S.L.	Polonia	148.500,00
Jamai Investment Group, S.L.	Txina	71.385,00
Mallabier 2011, S.L.	Mexiko	294.605,36
Overbit Internacional, S.L.	Txina	59.250,00